




Goldsmithen ikaslea, **Joxean Agirre (Erein)**: Goldsmith irakasleak Interneten eskaintzen duen literatura ikastaro birtualean eman du izena idazlegai euskaldun batek. Maisuaren aholkuei jarraituz, originaltasuna bilatu ordez, iraganeko pasadizo bat oroitu eta hura idaztera jartzen da: nola gaztetan, etxera ezustean itzuli eta orduko neska-laguna aurkitu zuen ohean, bi morroirekin abiadura handiko jardunean. Zenbait pertsonaia eta beste hainbat istorio txirikordatzten ditu egileak, umorez, sentsualtasunez eta literaturarekiko maitasunez gainezka egiten duten orrietan. Amaieran, gainera, Euskal Herria asteburu batean ezagutzeko gida turistikoa, gastronomikoa eta kultural bat oparitzen digu, olgetan nahiz benetan hartzeko modukoa.



Jenisjoplin, **Uxue Alberdi (Susa)**: Baldintza makurrei aurre eginez zaildutakoa da Nagore Vargas, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzen ohitua: autoritatearen kontra, benetakotasunaren bila, desafioek inarrosirik, barne bulkadaz, presaka maitatzen, bortizkeriari artez begira, arriskuari deika, edozertarako prest.

Bilbora iritsi zenean hiri bat gatazkan zeukan deskubritzeko; zenbait iraultza eta abentura, engaiatzeko; gorputz bat, biolentziaren eta erotikaren artean jokoan jartzeko. Klasearen, aberriaren eta sexuaren izenean nork bere amorrua bizkortzen zuen garaiak gozatu zituen Nagorek. Baina orain, 2010eko irailean, 28 urte dituela, Artxandan dago Libre irratiko hiru lagunekin, azken bilkura moduko bat antolatu dute, jakinaren gainean segika dituztela txakurrak, preso hartuko dituztela ziurrenik eta itxi egingo dutela irratia.




Haizeari begira, **Jon Ariza de Miguel (Elkar)**: Nire leiho pareko etxean ez zegoen inor, baina te katilua bukatzen ari nintzela argia piztu zen gortinen atzetik, eta pertsona baten itxura sumatu nuen. Nolabait argi iturria haren atzean zegoen eta pertsonaren itzala proiektatzen zuen gortinen aurka, ombres chinoises antzoki batean bezala.

Pertsona hau arropa erantzten hasi zen: jaka edo zamarra edo berokia lehendabizi, jertse bat gero, kamiseta, eta prakak. Segundo pare batez desagertu zen, eta berriro agertu zen arropa janzten, pijama ziurrenik. Berriro ere desagertu, eta laster agertu zen, eskuan zeozer zeukala. Ahora eramaten zuen moduagatik igarri nuen katilu bat zela. Agian nire moduan tea edaten ari zen?



Arrutiren banda, **Jon Arretxe (Erein)**: Nobela honetan Jon Arretxe idazle bidaiariak jaioterrian kokatu du trama: Basaurin. Hasiere-hasieran ageri zaigu konkistatu beharreko altxorra, lapurreta baten fruitu eta urmael batean gordeta omen dagoena. Altxor hori eskuratzeko ahaleginean lehiatuko dira nobela honetako pertsonaia nagusiak. Azpijokoz, intrigaz, gezurrez betetako trama honetan, ezer ez da ematen duena. Zinema giroko sekuentziazio batekin, erritmo lasterrean garatzen da haria eta jazarpen grotesko batekin bururatzen da.



Ekialde hurbila, muinak eta ertzak, **Mikel Ayestaran, Ane Irazabal eta Karlos Zurutuza (Elkarlanean S.L):** 2011n, itxaropena lehertu egin zen herrialde arabiarretan, askatasun politikoaren eta justizia sozialaren izenean, plazaz plaza zabaldu zen iraultza, mugak zeharkatuz. Baina indarkeriak demokraziak baino azkarrago egin du aurrera. Udaberri Arabiarrak eremu antzu bihurtu dira. Zein da herrialde horien gaur egungo argakia? Zein testuingurutan piztu ziren iraultzak? Zer gertatu zen aldi berean eta eremu berean bata bestearen ondoren kateatzeko? Ekialde Hurbila, muinak eta ertzak liburua galdera horiei erantzutera dator, eta, bide batez, eremu zabal bezain liluragarri eta konplexu horretan dagoen egoerari erreparatzera, gatazken muinak eta ertzak azaltzera, geopolitikoak eta geografikoak.



Herejeen alaba, Fraile bat Orreagatik Durangorantz abiatzen da. Hara helduta, biharamunean hamabi hereje erreko dituztela jakingo du, haien artean haur bat, herejeen alaba. Hau da Kristalezko bihotza narrazioaren abiapuntua, irakurleak esku artean duen liburua zabaltzen duena.

Joseba Sarrionandiak -literatura arturiko eta mediebalean murgildutabizi izan zuen kartzelako -denbora hutsean- izkiriaturako narrazio hura iturri historikoetan gordetako errealitatea fikzioarekin uztartzen duten horietakoa da. Hala ere, proiektu honen eragile izan diren aurkikuntzek agerian utzi dutenez, kasu honetan, errealitatea eta fikzioaren arteko erlazioa zeharo korapilatsua da, historia eta istorioaren hainbat geruzatan azaltzen dena.



Luhuso, ETaren armagabetze zibilaren kontakizuna, **Enekoitz Esnaola (Elkarlanean S.L):** Aietetik Baionarako kontakizuna egin du Enekoitz Esnaola kazetariak Aleka bildumaren liburu berrirako, mugarriz mugarri. Euskal gatazkan bakegintzarako mugarri izan baitzen Aiete: jarduera armatua utzi zuen ETak. Luhuso ere izan zen gogoangarri: haren armagabetzearen lehen ekinaldia izan zen. Eta hurrengo mugarria, Baiona: guztiz desarmatu zela iragarri zuen ETak, 2017ko apirilaren 8an; Aieteko bake konferentziatik bost urte eta erdira. Espainiako eta Frantziako estatuen jarrera ikusita, eta saioak saio, ETak azkenerako gizarte zibilari eman zion armagabetzearen ardura politikoa eta teknikoa, eta, lan kolektibo eta iraunkor bat eginez –batik bat, Ipar Euskal Herrian–, Frantziarekin hitzartu zen. «Armagabetzearen euskal erredua», deitu diote.



Labur txintan, **Juan Kruz Igerabide (Pamiela):** «Ez dago gaitz absoluturik, Canetti. Aski eta sobera dugu erlatiboa.» Labur txintan aforismo-liburua 12 koaderno laburrez osatua dago: «Giza-legearen koaderno ausazkoa», «Educatio non petita», «Post mortem kaiera», «Norabideen psikokaiera», «Arte-koaderno minimoa», «Poetika minimoa», «Zizipazaren koaderno», «Gezurra apainduz», «Zer-nolakoaren koaderno», «Jainkotiar komediaren koaderno», «Umerez gerotik gerora» eta «Landareen patxada».



Txoriak dira bederatzi, **Tere Irastorza (Pamiela)**: formaz eta mamiz da saiakera. Modu askean eta laburrean ideiak lotzen eta askatzen saiatzen dena.




Honetara ezker, **Arantxa Iturbe (Susa)**: "Bonsai egilearen obsesioz idatzi ditut ipuinok. Adaxkak luzatzeko arriskuan sumatzen banituen, bihotzgabe kimatu egin dizkiet. Horregatik eman dute hain fruitu txikia, neurritz hain kontzentratua. Bonsai-ipuinak deitzea ere pentsatu dut".



Umezurtzen aberria, **Julen Kaltzada (Txalaparta)**: Euskal Herria umezurtzen aberria da. Gerra garaian edo ostean jaiotako euskal herritar askok ez zuten aita edo ama ezagutu: Francoren aldekoek gure herriko kanposatuetako hormen aurrean edota bide bazterretan milaka eta milaka herritar hil zituzten. Horrela hil zuten Julen Kaltzadaren aita, Derion. Baina, horrez gain, hainbat belaunaldi zurtz jaio ziren etxean norbait faltan izateaz gain aberririk gabe jaio zirelako. Askok bizitzan aurrera joan ahala deskubritu zuten zergatik senideak faltan zituzten, zergatik haien askazia ia guztiz desagertuta zegoen. Antropologia lana izan zitekeen autobiografia honetan Julenek, umore lehor batez, desagertutako ohiturez eta paisaiez hitz egiten digu eta kontzientziaren itzartze pertsonal eta kolektibo horren kronika bizia egiten digu.




Jainkoen zigorra, **Alberto Ladrón Arana (Elkar)**: Olivier eta Peio Idiart, bi anaia baxenabartarren hilotzak agertu dira Mendaurko mendi-tontorrean, erritu azteka bati jarraituz sakrifikatuak, itxuraz. Foruzaingoak hartuko du kasuaren ardura, jendarmeriarekin batera elkarlanean, eta ikerketan aurrera egin ahala ohartuko dira, hilketaren xehetasun ankerren azpian, buru hotza eta ahal handiak dituen norbait ari dela, bere helburuak lortu nahian. Leire Asiain inspektorea krisi pertsonal larri batean harrapatzen du kasu berri honek, iraganeko mamuen erasopean eta aurrerantzean nondik nora jo ez dakiela. Bidegurutze horren erdian, baina, bereak eta bost egingo ditu, bai heriotza misterioitsuak argitzeko, bai bere bizitzaren lemari tinko eusteko.



Horma, **Anjel Lertxundi (Erein)**: Itzultzailea da nobela honetako narratzailea. Kode batetik beste batera hitzak pasatzen espezialista. Bizitzan ere halatsu, kode batetik bestera pasatu beharra du mundua ulertuko badu. Maite du bere lana, baina hor sortzen zaio arazoa. Haurtzaroan gertatu ziren pasarte lauso batzuk nahasten zaizkio buruan, Martarekin bikote harremanari ekin behar dion une berean, noiz eta amari, kode haiek erraz itzuliko zituen pertsona bakarrari, memoria husten eta hondatzen zaion garaian.



Hitzontziak, **Xabier Montoia (Susa)**: Langile borroka, sabotajeak, lapurretak, drogak, negozioak, hilketak, adiskidantza, amodio harremanak dira Xabier Montoiaren zortzigarren nobelako adarrak. Iturri tabernan topo egiten dute aldi behin Oihane filosofo gazteak, Biteri tabernariak, Gloria alargunak eta Goietxe ugazabak. Ez dira laurak elkarren lagunak, baina pixkanaka elkarren berri izaten hasiko dira. Kontakizun durduzagarri honetako protagonistak memoriaren menpe bizi dira neurri handi batean. Iraganeko mamuek ez diete bakerik ematen, kontu eske etorri izan balitzaizkie bezala.



Ernesto Prat, Telleria eta gero, zer? (Elkar): Sarako Gaztetxean egindako kontzertu batetik bueltan, egundoko bestondoarekin eta guardia zibilen kontrol batekin topo egin ondoren, giza hezur batzuk eta pakete arraro bat deskubrituko ditu Lurrak, obra-hondakinen artean. Misterio hori, gainera, nahastu egingo da Baztanen, herritarren nahiaren kontra, egin nahi duten plan urbanistiko erraldoi batekin. Musikaren erritmoan eta kamiseta erreibindikatioben konpainian, hainbat pertsonaia eta gertakari nahasten dira eleberrri beltz honetan: sekta ultrakatolikoak, kontrabando arkeologikoa, momia egiptoarrak, psikiatrikoko gaixoak, rock kontzertuak, besta eta parranda, eta, batez ere, protagonista ahaztezin bat: Lurra, neska bizizale eta urduri bat, Baztan bukolikoaren irudia zapartatzera datorrena.



Bihotz handiegia, **Eider Rodríguez (Susa)**: Ez du batere gogorik senar ohia zaintzera joateko, baina alabak hala eskatu dio eta gizonari bizialdi laburra geratzen zaionez, ahalegin txiki bat egin behar luke agian. Liburu honi izenburua ematen dion kontakizun luzeena eta lehendabizikoa da “Bihotz handiegia”, garai baten amaierari buruz diharduena, maitasunaren hondakinez.

Arroztasun sentipena dute Eider Rodríguezen sei ipuinetako pertsonaiek: nolakoa izaten ari da bikote bizitza hau, zein desio ote ditu auzokide perfektuak, nor bihurtu gara sute ikaragarriaren ondoren, ginekologoak erakutsiko al dit nolakoa naizen barrutik, zer espero zuten izango nintzela, norenak dira esku hauek.